

A close-up portrait of an elderly man with white hair and a mustache, wearing a white shirt. He is looking slightly to the right of the camera with a serious expression. His arms are crossed, and a ring is visible on his left hand. The background is a blurred bookshelf.

# Filipe Oihanburu

• PERTSONAIA •

## “Dantzak eta kantuak bozkarioa dakarte mundura”

Dantza eta kantua ditu mundu. Baita euskara, Euskal Herria, politika eta gaineratekoa. Laurogeita urtetik gora da, baina haurren bizitasuna du. Bizi onaren aztarna ageri da haren begietan.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Gaizka Iroz

## ● Filipe Oihanburu

Euskaltzale porrokatua zara, nahiz eta, ttipitan, ez zenuen euskara ematen...

Ez nekien batere. Ene aitak ere ez zekien. Hara, gero jakin dut, aitaren lehengusu batek erranik, bere aita-amak bazekitela. Eskuara omen zekiten, baina gaskoiz ari ziren beti, gaskoia zen nagusi hemen. Garai batean, gaskoiz mintzatzen zen Pasaian! Sartu zen pixka bat Donostian ere.

**Musika, dantza, politika, euskara, koreografia...**  
Arlo aunitzetan ari izan zara.

Txapel asko!

**Esango nuke!**

Irakasle ere banaiz! Oraindik baditut sei ikasle, eskuara ikasten ari dira nirekin. Maluruski, txapel asko. Behar zen espezializatu, sail bat hartu eta errotik ikasi. Ez musika, ez dantza... ez ditut sekula errotik ikasi. Biziki laketgarria da gauza anitzetan sartzea, baina ez da ongi. Musika eta harmonizazioa banekizki hobeki, zer diferentzia!

**Saltsa aunitzetan ibilia...**

Bai eta irratan ere. Asko lan egin dut. Irratan denetatik pixka bat jakitea on da, baina musikan ez.

**Baduzu arrangura, ez zarela euskal lurtean sortua.**

Ene aitak lan egiten baitzuen Indotxinan, han sortu zen ene arreba. Ez du fitsik erran nahi, badakit. Baina, aita handik etorri da, ezkondu berria, alabarekin; ni ez nintzen oraindik sortua. Orduan, aita sartu da Eskual Herrira eta hemen egon da pixka bat, Ameriketara baino lehen. Eta

## Kurruskua

"Aitak, ogia hartzekotan, beti erraten zidan kurruskua hartzeko, beti punta, semeak ukaiteko. Usaia da hemengo eskual herrian. Diote, jaten baduzu kurruskua, semeak ukanen dituzula. Nik, kurruskua janagatik ere, lau alaba ukan ditut. Kar, kar, kar..."

erran dit, kontzebitua izan nintzela Miarritzen. Eta sortzekoa Hendaian. Ene aitak bazituen anaia-arrebak Hendaian, baina jeloskorak ziren, gure ama bazelako artista. Eta ama eta aitaren familia ez baitziren ongi konpontzen, ene gurasoak eskapatu ziren Hendaiaitik. Bertzenaz, erran dut, Miarritzen kontzebitua eta Hendaian sortuko nintzen ni. Aldiz, Argeles-Gazosten sortua nauzu, herri ttipi bat, Biarnon! Halaz ere, bien partetik, amaren eta aitaren partetik, bietatik dut odola, eskualduna eta gaskoia.

**Inportantea da odola?**

Eskuara da inportanteena enetzat, eskuara. Eta eskuararekin doazen bertze anitz gauza ere. Baina odola... Giroa da inportantea.

**1937an Eresoinka ikuskaria ikusi zenuen. Hark bai, inportantzia...**

Bai! Inportantea izan da. Orduan ez nintzen batere abertzalea. Aitak jakin zuen Eresoinka bazela Parisen. 1937ko abendua zen. Eresoinka Saran hasi zen, eta Parisen izan zen gero. Ikusi nituen eta asko miretsi genituen. Dantza, batez ere, korala baino gehiago. Orduan ez nintzen musikan sobera trebe, maite nuen, ez besterik.

**Eresoinkak jarri zintuen euskal munduari begira?**

Ez zen aski hori. Aitak ez zekien eskuara, baina eman dezagun bazela eskualtzalea; ez abertzalea. Orduan hemen ez zen abertzaleric, baina aita beti ari zen "basque, basque..." Hitz batzuk bazekizkien eskuaraz, eta ematen zituen. Amak ere bazekien bere familian bazirela Ezkurra leinukoak, Nafarroako elizetan zaldi gainean sartzeko eskubidea zutenak.

Bazen zerbait giroan. Bertzetik, hastapenetik izan nintzen internazionalista, zeren eta hiru hilabetetan Montevideora eramana izan bainaiz... Baina gauza bat inportantea izan da: aita eta ama dibortziatu dira eta, orduan, bakantzetan zer egin seme-alabekin? Arreba eta biak, Hendaia-ra, izebaren etxera, 1935etik 39rako udaldietan. Ni arras faxista nintzen, arras Francotarra. Aita, burgesa, eskuina zen. Ni, eskuina arras. Baina Hendaian hasi ziren errefuxiatuak etortzen, eta ikusiz, konparazione, Hondarribitik etortzen ziren errefuxiatuak arras eskualdunak zirela –Hendaiaikoak baino gehiago–, ikasi nuen.

## Nortasun agiria

Filipe Oihanburu (Argeles-Gazost, Okzitania, 1921). Etorburu abesbatza gidatzen du egun. Olaeta baleteko kide izan zen, Oldarra taldeko buru, Etorki ospe handikoaren zuzendari... Musika eta dantzari emana bizi izan da Parisen eta Miarritzen. Haatik, euskara, politika eta irratigintza bera ere ez ditu aparteko izan. Liburuak ditu idatziak dantzaz, euskal deiturez eta politikaz. Oraindik orain, berriz, Filipe beraren biografia ondu du Eneko Bidegainek *Bidegaiak* bilduman.



**Hondarribitik Hendaia**ra igaro zirenetan, izen bat...

Bai, mutiko ttipi bat, Felix –Hondarribiko mutiko bat, beharbada bizi da oraino, ez dakit bate-re-, 1937-38an, eta ni edaraz hari: “Zu espaino-la zara!”, berak: “Ez, euskalduna naiz, zu bezala”. Zazpi urterekin! Nik ez nion erran eskualduna nintzela. Berak sumatu-edo! Oihanburu izenez bai, biziki harro nintzen. Orduan hasi da eskuararen ikasteko gogo, eta gero abertzaletasuna.

**Hori zure bidea...**

Frantses abertzale handi bat bezala, hasi nintzen eskola militarrean, alemanen kontrako gerra hasi baitzen. Frantzia iparraldetik igorri zituzten jendeak, hegora, Baionara, Pauera eta bertze tokietara, gerra hasi zelakotz. Nahi nuen frantses soldadu izan. Baionako eskola militarrean igorri ninduten. Anitz ginen Parisetik eta Frantzia ekialdetik etorriak. Eskolan ginela, hiruk, “Gora Euskadi Askatuta!” ezarri genuen buruan ibiltzen genuen txapel ttipietan. 39an! Fite kanbiatu ginen. Urtebeteko preparazio-nea egina zutenek bazuten eskubidea nahi zutena izkiriatzeko beren txapeletan. Guk, berriok, ez genuen deretxo hori, baina hartu genuen. Hiru ginen, hirurak miarritzarrak,

“Ni arras faxista nintzen, arras Francotarra. Baina Hendaian hasi ziren errefuxiatuak etortzen, eta ikusiz ikasi nuen”

arras gaskoi den herria. Ikusten duzu nola gauza anitz pasatu diren denbora gutian? Eta kanbiatu naiz.

**Noiz hasi zinen euskaraz ikasten?**

Galdera interesgarria duzu hori. Hendaiaiko bakantza delakoetan, ttipitan... Ez hain ttipitan hala ere! 1936an banituen hamabost urte. 1937an pixka bat kanbiatzen ari nintzen. Orduan hasi da eskuara ikasteko gogo. Xantza ukan dut: ene osaba-izebek bazekiten eskuaraz Hendaian, ene aitak baino gehiago. Bazuten neskame bat hondarribiarra, Koxepa, eta hari: “Nola erraten da halako eskuaraz?”. Horrela, bakantzetan.

**Hori ez da aski izaten...**

Ez da, ez, aski izaten. Liburu bat topatu dut, Eiheramendi apezak oso ongi egina. *Gramática Vasca*, lehen liburukia. Eskuaren hastapenak oso inportanteak dira. Hala ere, liburu bat ere ez da aski. Parisen gordeta nintzenean, behar nuen lehenik osasuna salbatu –erreuma artikulazioetan nuela erran zidaten medikuek–, eta eskuara ikasi. Azkenean, 44an, Paris utzi eta behar nuelarik eskuara ikasi, kokatu naiz, orduan bai, Larresoron, gero Ezpeletan, eta gero Alduden. Eta guti ikasi! Badakizu zertako? Liburuekin eta kantuekin ikasten dituzu gauza asko, baina gero, jendearen konprenitze-

**Jaso astero ARGIA etxean**

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....  
 Herraldea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....  
 Entitatea: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

**Aukeratu ongietorri oparia**

“Kirolaz badakit” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Txoriak txori” lamina

%25eko beherapena ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2008ko prezioak

135 € Hego Euskal Herrian  
165 € Ipar Euskal Herrian





ko... Miarritzeraz itzuli nintzen –alemanak han zirela–, Olaeta baletaz okupatzeko. “Filipe, ez duk eskuara hire bizi guzian ikasiko” erran nuen. Baina Oldarran bazen mutiko bat Zarauzkoa, Basterretxea, desterratua: bakarrik bizi zen eta ez zekien frantsesa. “Zatoz, Basterretxea, zatoz ene etxera, lo eginen duzu han”. Eta harekin, nekien guzia etorri zait. Eta gero Monzon. Harekin praktikatu nuen. Horrela ikasi nuen, denetatik eginik, liburuak, kantuak, Monzon... Oldarran, gero, aski fite, ukan genuen Likiniano. Haren eskuara, Arrasateko eskuara ezin konprenituzkoa zen!, baina eskuaraz ari ginen. Beste bat bazen beste aldekoa, Zapirain, donostiarra.

#### Euskaltzaletu eta abertzaletu zinen.

Bai, eta Miarritzen ziren Urreztiarrak, Sotatarak, Vilallongatarrak, Barkos Landazabal... Monzon gero ezagutu nuen. Eta Mixel d’Arcangues! Honek aita zuen ez Francoren alde, baina Espainiako erregearen alde. Eta semea, Mixel, abertzaletu: txistua ikasi zuen, eskuara ere bai... Egun batez, Baionako kafe batean, Migel Saseta –Kandidoren anaia–, eta d’Arcangues, arras *chic*, badakizu, dotoreak, eskuaraz!

**Chic eta dotore bezitu behar ote dugu geure buruak aintzat hartzeko, bestek aintzat har gaitzan?**

Ni beti horrela izan naiz! Kar, kar, kar... Denetarik izan behar dugu ene ustez. Euskadin baditugu apezpikuak eta putak, denetatik. Egia da. Ikusten ditudalarik egungo gazteak, ile luze-eta... Monzon ere, ni bezala, beti dotore!

#### Ezagutu zenuen Monzon.

Biziki ongi. Eusko Ikaskuntzaren idazkariorde nintzen, idazkari nagusi Manu Sota izan zenean. Presidente, Joxe Migel Barandiaran. Hemen ginen. Eusko Ikaskuntzaren zazpigarren edo zortzigarren kongresua hemen gertatu zen. Manu Sota, Monzon eta hirurak beti elkarrekin ginen. Erdaraz, Manurengatik. Bazekien eskuaraz, baina ez mintzatzen. Ezin! Monzonekin bai, beti eskuaraz...

#### Parisen zinen Bigarren Mundu Gerra garaian. Garai latzak.

Bistan da. Erraten dizut: Pariseraz joan nintzen 41ean, lana atzemateko. Aski zaila izan zen. Eritu nintzen. Gero, Miarritzeraz itzuli nintzen.

## Gazteak

“Badakizu nolakoak diren gazteak. ‘Gauzak ez dira aitzinatzen guk nahi bezain fite!’. Ados naiz, gehiago behar genuke, baina zer lortu dugun! Lortu dugu asko! Orduan, nik ezagutu ditut dozena bat abertzale, ehun bat abertzale. Laffite, Xarriton, Labeguerie, Goienetxe, Larzabal apezka... guti ginen. Orain, beti, hamar mila edo gehiago ere!”.

Osatu nintzen. Olaeta taldean sartu nintzen orduan. 1942an alemanak hasi ziren Atlantikoko murrua egiten. Deitu ninduten eta aurkeztu nintzen: “Bihar goizean etorri behar duk guretzat lan egitera!”. Ni ez nintzen politikan sartua. Hasia nintzen abertzaletzen. Frantsesak, ingelesak... bazter utziak nituen, ez zen nire afera. Baina alemanek hura erran zidatenean, gorde nintzen, ezkutatu. Pentsatu nuen Larresoron bizitzea, bestaldeko bi lagunekin, Larresoroko gain batean zegoen baserrian... Hura zorakeria zen, ordea, Euskal Herria ttipia baita, eta laster salatua izango nintzen! Orduan, Pariseraz joan nintzen, hobeki ezkutatzeko. Han, lehenik, gosez hiltzen ginen. Gero, ene adiskidea, neska, errusiar judua zen, aberatsa, baina judua. Izeba bat ukan zuten deportatua, kanpamenduan hila, baina haiek ez zuten txarrik ukan... Jendeak ahantzia du, baina hastapenean alemanak ez ziren sobera salbaiak, ez zuten erakusten salbaiak eta gaiztoak zirela... Errusiako gertaerak eta gero, gaizto gertatu dira. 1943-44 urte gogorak izan ziren Parisen. Bi aldiz izan nintzen arrastatua, eta bi aldiz libratua. Segur da polizia horiek De Gaulleren alde zirela. Uf!

**1944an Miarritzeraz itzuli zinen, Olaeta baleta abian zen, bertan parte hartu zenuen...**

Ez dakit jendeek badakiten. Egun batez, Espainiak Baionan zuen konsulak deitu zuen Segundo Olaeta, erranez ideia separatistak zabaltzen zituela baletaren bidez. Olaeta izutu zen eta handik laster Bilbora itzuli zen.

**Orduan hartu zenuen zuk taldearen ardura. Izena ere kanbiatu zenion: Oldarra, Piarres Laffitekin erranik.**

Bai, hain xuxen. Laffitekin anitz hitz proposatu zizkidan. Horietan, *oldarra*, bultzada bat gaitza, fisikoa edo morala...

**1953an zatiketa etorri zen Oldarra taldean. Zenbaiten irudiko, sobera abertzaleak zineten, separatistak... Zioren behar zenutela kantatu eta dantza egin, bestelakoak ahantzirik...**

Nik uste dut hori lehenago izan zela, 49an, edo 50ean... Aroztegi zen orduan gure presidentea. Gizon biziki ona, baina Miarritze eta turismoa, besterik ez zuen buruan. Hura, alde batetik, eta ni bestetik. Orduko auzapeza Guy Petit Francoren aldekoa zen. Uzten gintuz-

## GALDE SHORTA

- ✓ **Aita-amak:** Ama artista zen pixka bat, bazekien pianoa jotzen. Aita, langile klasetik ateratua, eta gero aberastua!
- ✓ **Odola:** Jon Paredes, *Txiki* hil zutela, ez zen batere eskualduna odolez, espainola zen arras, baina fusilatuta dute "Gora Euskadi Askatuta!" erranez.
- ✓ **Burgesa:** Aldi hartan, burges eta eskuaraz ari, hemen, guti! Kanpainako mintzaira zen eskuara!
- ✓ **Paris:** Parisen bazen Etorki, baina bazen politika, emazteak... Orduan dibortziatua nintzen, libro! Eta, zinez, Parisen libro izatea ez dakizu zer den! Kar, kar, kar...
- ✓ **Euskara:** Eskuara ez da erraza, ez da konplikatu. Eskuara

ra diferentea da, jeniala da eskuara.

- ✓ **Irakasle:** Nire ikasleek beti erraten didate: "Pupu, ikasi dudana buruan sartua da betiko, zeren eta zuk sinpleki esplikatzeko dizkiguzu gauzak".
- ✓ **Iheslariak:** Ezagutu ditut lehengoak, eta gerokoak ere bai! Denetarik. Lehenbizikoak ziren Sota, Likiniano... Gero, Madariaga, Benito del Valle... Asko baziren.
- ✓ **Bakunin:** Nire liburua idatzi dudalarik, jendeek irri egiten zuten: "Anarkismoa! Kar, kar, kar!". Orain ez, orain ez dute irri egiten.
- ✓ **Azkeneko hitza:** Bizi ederra ukan dut, aitortu behar dut.

ten, turismoaren laguntzeko, baina jadanik izan ziren kalapitak ikurrinarekin. Haiek ezetz, guk baietz.

### Oldarra utzi eta Etorki sortu zenuen.

Batzuek erraten dute beti kanbiatzen ari naizela, baina Olaetarekin urte bat, eta Oldarrarekin zortzi egin nituen. Ez da minutu bat. Gero, Etorki sortu, eta hogeita hamar urte. Beraz, ez naiz hain fite kanbiatzen. Gainera, Oihanburu korua, eta Etorburu korua orain...

### Lan egin duzu, bederen...

Baina ez naiz sobera pozik. Arestian erran dizudan bezala, behar nuen espezializatu, sail bat hartu eta gehiago ikasi hartan. Irratia, politika, emazteak, Etorki... Sobera gauza! Ongi da, interesgarria da, baina ez zara aberasten, eta zaharztean diru pixka bat ukatea on da, eta ez zara nagusitzen zure sailean. Hala ere, ene buruari barkamendua ematen diot. Damu dut ez espezialdua. Irratian segitu banu, norbait bilakatuko nintzen, segurik! Ni beti Etorkin pentsatuz, eta irratiak bizitzekoa ematen zidan. Ez naiz kontent.

### Nahiago duzu, beraz, bide bakarra hartu bazenu...

Ezta hori ere! Ez bide bakar bat, baina menturaz hobe nintzen bide gutxiago harturik.

### Marxista izan zinen, Bakunin zale gero.

Burges seme bat bezala, eskuindarra nintzen. Gero, gertatu da Euskadiko afera. Hasten zara pentsatuz Gernikan zer pasatu den. Alemanen etorrerarekin zer gertatu den, ene adiskidea, judua... Hasten zara konprenitzen mundua ez dela sobera ongi egina. Bestalde, hasi ginen Parisen, Etorkirekin, eta arrakasta handia. Alta, tropa ez zen perfektua. "Ez züzün perfekt!", Zuberoan erraten duten maneran. Baina Nekane Lasarteren boz ederra, Polentzi Gezala... Arrakasta handia, dirurik ez. Zer da mundu hori? Orduan hasi naiz kapitalismoaren kontra erbelatzen. Hamar urtez egon naiz Alderdi Komunistan. Egun batez, gauza batzuk konprenitu ditut: Pragako historia eta! Italian nintzen orduan. Han irakurri nuen: "Errusiako tankeak

## Haritschelar

"Egun batez eman genuen ikusgarri bat Baionan. Gure taldeko neska batek irrintzia eman zuen. Haritschelarrek idatzi zuen artikulua bat, Etorki oso ederki arizan zela erranez, baina irrintzia emazte batek emanik... Hori ez zuen maite ukan. Nik, arapostua emanik, erran nuen: 'Hobe da emazte batek emanik, nehorik ez ematea baino'. Irrintzia galtzen ari da orain, eta Zuberoako dantzetan ere ez zen sobera mutilik: neskak hasi dira, gero eta gehiago!'"

Pragan sartu dira!". Holako pitokeriarik ez zen egin behar! Orduan kanbiatzen hasi naiz, eta liburua idatzi dut, komunisten kontra: *Bakuninen errebantxa* liteke eskuaraz. Eta ez dut liburu hori ukatzen.

### Komunismoari adio –baina "sekulako"–, adio –baina "ongi etorri"–, anarkismoari...

Komunismoa... kaka! Izaten ahal zen hobeki, baina ez da. Kapitalismoaren kontrako naiz. Kapitalismoak ez ditu munduko aferak antolatu. Gauza berri bat behar dugu, anarkismoa, autogestioa edo ez dakit nola deitzen ahal dugun, baina beste mundu bat pentsatu behar dugu, eta ez dugu aski pentsatzailerik! Oraingo jendeak ez du pentsatzen ahal, kapitalismoaren orde zerbait berri egiten ahal dela. Ez dute pentsatzen...

### Frantzia badira pentsalariak...

Badira, bai. Julliard eta. Jesuita da, arras gure aldekoa. Berak konprenitzen du, nik bezala, mundu hau katastrofea dela. Gero eta gehiago dira hola pentsatzen dutenak.

### Eta, orduan, zer dute egiteko dantzak, kantuak.. gure munduan?

Galdera ona! Bozkarioa ekartzea. Kantuz ongi ari zelarrik, Aita Donostiaren zerbait edo Guridi, edo Xabi Busto –Hondarribiko musikaria–... ez da erraz, baina ongi kantatzen badituzu, ematen diozu zeure buruari bozkarioa, poza, eta entzuten ari den jendeari ere! Zenbat aldiz, gure kontzertuaren amaieran, jendea etorri zait: "Milesker, milesker!". Ikusten zen ukan zutela bi oren bozkarioz. Getariko elizan izanak gara duela guti, eta entzule artean, emazte batzuk negarrez. Hori eder da. Edergintzak, zuek artea erraten duzuen hori...

### Kar, kar, kar...

Horretan Sabin Arana bezala naiz, pixka bat neologista. "Artea"... Hori ere bada! Hor dira "bien artea", "haitz artea", "karrikarte"... Noiztenka egin behar da ahalegin ttipi bat. "Euskal artea"? Euskal edergintza! Atzeman ezazue hitz bat, baina egin ahalegin ttipi bat... Hara, edergintzak ekartzen du zerbait: ona eta ederra. ■